



EBAZPENA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, 2019ko UZTAILAREN 16koa, ABUZTUAREN 21eko 158/2012 DEKRETUAREN BIDEZ HEZKUNTZA SAILEAN INTEGRATUTAKO PERTSONAL IRAKASLE FINKOA LANPOSTUETAN ESLEITZEKO PROZESUA BEHIN-BEHINEKOZ EBAZTEN DUENA

GERTAKARIAK

Lehena. 2019ko ekainaren 28ko ebazpenaren bidez hasiera ematen zaio abuztuaren 21eko 158/2012 dekretuaren bidez Hezkuntza Sailean integratutako pertsonal irakasle finkoari lanpostuak esleitzeko prozesuari eta prozesu hori arautzen da.

Bigarrena. 2019ko ekainaren 28an bost saiotan, abuztuaren 21eko 158/2012 dekretuaren bidez Hezkuntza Sailean integratutako lan-legepeko pertsonal irakasle finkoak zerbitzuak ematen dituen ikastegi bakoitzeko bana, bildu ziren Administrazioako ordezkariak eta prozesu horrek eragiten dion pertsonala.

Bilera horietan ondorengo agiriak entregatzen zaizkio langile bakoitzari edo, ez badago, berorren ordezkariari: alde batetik, abuztuaren 21eko 158/2012 dekretuaren bidez Hezkuntza Sailean integratutako pertsonal irakasle finkoari lanpostuak esleitzeko prozesuari hasiera ematen dion eta prozesu hori arautzen duen Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko ekainaren 28ko ebazpenaren kopia; bestetik, lanpostu batera atxikitzeko proposamen pertsonal bat langile bakoitzari; proposamenak kategoría, espezialitatea eta lantokia hartzen ditu.

Ebazpen-proposamenean jasota agertzen denaren arabera, langileak 15 egun naturaleko epea izango du haren kontra alegazioak aurkezteko, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena. Ondorengo puntuak aplikatzen zaizkio 158/2012 dekretuaren 2. artikuluan xedatzen den atxikitze-prozesuari:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako 527/2013 sententzian adierazten denez, 158/2012 dekretuaren bidez egindako transferitzea enpresaren ondorengotza da eta enpresaren ondorengotza horrek, Langileen Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 legegintzako errege dekretuak 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, subrogazioaren eginbehar juridikoa dakar kontratu-harremanetan.

2.- Pertsonalaren egiturak eta langile bakoitzari esleitutako funtzioak ordenatu eta antolatzeko tresna dira lanpostu-zerrendak (uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 legearen 13. eta 14.1. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria).

3.- 158/2012 dekretuak azaltzen ez duenari begira aplikatzeko moduko araudiari dagokionez, eta Hezkuntza Saileko lan-legepeko pertsonal irakasle eta hezitzailearen hitzarmen kolektiboan horretaz ere ezer xedatzen ez dela kontuan hartuta, ondorengo legeria aplikatuko da: Bigarren Hezkuntzako Institutuetako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako lanpostu-zerrendak ikasturte bakoitzean eragiten dion pertsonal irakaslea zehazteko irizpideak ezartzen dituen eta irakasleak ikastetxeetan berraxikitze prozesua arautzen duen apirilaren 16ko 86/2002 dekretuaren lehen xedapen gehigarria, eta behin betiko destinorik ez duen edo



destino horretan ari izango ez den karrerako funtzionario irakasleei edo lan-legepeko funtzionario finkoei begira ikasturtearen hasierako esleitzeko prozesua arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko ekainaren 6ko aginduaren lehen xedapen gehigarria.

Bigarrena. 2019ko ekainaren 28ko proposamena ezin daiteke Administrazioaren ekintza propio eta lotesletzat hartu, berrikuspena erreklamazio epe barruan egin delako, prozesuaren tramiterako ekintza bat da eta ez du inondik ere behin betiko izaerarik.

Interesatuak onartu dituzten atxikitze-proposamenak ez dira lotesleak, Administrazioaren egintza bat ez baita derrigorrean bete behar, legearen arabera ez bada edo berdintasun printzipioa urratzen badu.

Hots, interesatuak proposamena onartu arren, A titulazio-taldekoa izan gabe irakasle bat "Bigarren Hezkuntzako Irakaslea" kategoriara atxikitzeak berdintasunaren printzipioa urratuko luke, B titulazio-taldearekin Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kategoriara atxikita dauden gainontzeko interesatuei begira.

Hirugarrena. Atxikitzeko prozesuak eragiten dion pertsonal irakasle finkoak aurkeztutako alegazioak ikusita, prozesu honek eragiten dion pertsonal guztiaren espedienteak, titulazioa batez ere, aztertu du berriro Administrazioak.

Kontuan hartuta, alde batetik Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2012ko abenduaren 10eko ebazpenak dioena, zeinak transferentzia osotasunean egiteko ekintza desberdinak zehazten dituen, bertan jasotzen da behin-behineko egoera mantenduko dela langileak lanpostuetan esleitzeko prozesua bukatu arte, duten titulazio eta hizkuntza eskakizunaren arabera eta behin betikoz ematen zaien kategoriaren arabera, eta bestetik epaitegiek kategoriaren inguruan jarraitutako irizpideak kontuan hartuta, (abuztuaren 21eko 158/2012 Dekretuaren bidez Hezkuntza Sailean integratutako pertsonalak ezarritako demandetan), Administrazioak erabaki du irakasleei duten titulazioaren arabera esleitzea lanpostuak:

A titulazio-taldea duten irakasleak: "Bigarren Hezkuntzako Irakaslea" kategoria.

B titulazio-taldea duten irakasleak: "Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoa" kategoria.

A titulazioko-taldekoak izan arren, erreklamazioetan haien borondatez Lanbide Heziketako Irakasle Tekniko kategoria mantentzea eskatu duten erreklamazioak onartu egin dira. Beti haien eskoletan kategoria horretako lanpostu nahikoa daudela ziurtatu ondoren B titulazio taldekoei kalterik sortzen ez dien bitartean.

Ondorioz, atxikitzeko banakako proposamen guztiak- baita 2019ko ekainaren 28an bertan onartu zituztenak ere-, berrikusi ondoren ikus daitekeenez, badago 2019ko ekainaren 28ko bileran entregatu zen berraxikitzeko hasierako proposamenean agertzen zena ez den beste kategoria batera atxikita geratu den pertsonala.

Laugarrena. Azkenik, eta tramiterako egintza besterik ez den arren, ezin die defentsa-gabeziarik eragin interesatuei eta, horregatik, onartzeko prozesua hasi eta arautzen duen ekainaren 28ko ebazpenaren arabera behin-behineko ebazpena, behin betikoa eman aurretik, eman behar ez den arren, 2019ko ekainaren 28an onartutako atxikitze-proposamena ez den lan-kategoriara atxikitako pertsonalari defentsa-gabezia eragin ez arren, behin-behineko ebazpen hau ematen da eta 5 naturaleko epea ematen da, erreklamazioak aurkezteko.

158/2012 dekretuak 2.2. artikuluan eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 dekretuak 10.2. artikuluan xedatutakoaren arabera,



Langileak Kudeatzeko zuzendariak du pertsonalaren burutzaren eta ohiko administrazio- eta kudeaketa-egintzen ardura.

EBAZTEN DUT

Lehena. Atxikitze-proposamenei aurkeztutako alegazioen zerrenda argitara ematea. Onartu diren edo ez eta zergatia adieraziko da. Zerrenda hau ebazpen honen I. eranskin gisa agertzen da.

Bigarrena. Ebazpen honen II. eranskinean agertzen diren Bigarren Hezkuntzako Irakasleen edo Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kategorietara atxikitzea abuztuaren 21eko 158/2012 dekretuaren bidez Hezkuntza Sailean integratutako lan-legepeko pertsonal irakasle finkoak.

Atxikitako irakasleek jaso beharreko ordainsariak erregularizatuko dira, lanpostu-zerrendan esleitutako kategoriaren arabera eta, betiere, finkatutako soldatei begira 2012ko abuztuaren 10eko akordioaren 3. artikuluan jasotakoa errespetatuz.

Hirugarrena. Esperanza Nieto Chamorro andrea DERIO NEKAZARITZA E. BHIkastetxean kendutako pertsonal irakasletzat jotzea. Izan ere, lehentasunezko izaerarekin hartuko du pertsonal irakasleari lanpostuak esleitzeko 2019/20ko ikasturtearen hasierako prozesuan parte.

2019ko irailaren 1etik aurrera jaso beharreko ordainsariak esleitutako lanpostuari dagozkionak izango dira, Saileko lan-legepeko pertsonal irakaslearen hitzarmen kolektiboan xedatzen diren ordainsari-taulen arabera.

Laugarrena. Erreklamazioak egiteko epe bat irekitzea 2019ko uztailaren 17tik 22ra bitartean.

En Vitoria- Gasteiz, a 16 de julio de 2019./2019ko uztailaren 16

**DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL/LANGILEAK KUDEATZEKO
ZUZENDARIA**

Jon AGIRRE HUERGA

